

STEILASen agerraldia Nafarroa Parlamentuan, 2018ko urriaren 23an

Ikastetxeetan ematen diren kanpo eraso salaketen igoeraren inguruko jarrera.

1. **Kanpo eraso salaketen kopurua handitu da**, baina horrek **ez du esan nahi kanpo eraso gehiago ematen direnik**. Jakitea zenbat kanpo eraso ematen diren benetan oso zaila da eta ongi ulertzeko simulazio bat eginen dizuet. **Indarkeria sexistarena** hain zuzen, oso simulazio ikusgarria baita. Izan ere, tamalez, jakin badakigu betidanik eman izan dela, baina azken urteotan izan da jendartearen konzientzia hartzen hasi dena eta, hori dela eta, gero eta salaketa gehiago ematen dira. Edozein kasutan ere, salaketa kopurua **iceberg**-aren punta besterik ez da eta lortu nahi duguna da urperatuta dauden ahalik eta kasu gehien azaleratzea. Esan dezakegu “pozik” gaudela gehiago salatzen delako. Horrela, salatzen den heinean arazoaren tamaina ikusten da eta euskarri ematen du arazoari eusteko, izan ere ikusezinduta dauden egoerei ezin baitzaie eutsi.
2. Aurrera goaz, lanean ari gara eta norabide zuzena daramagu, baina lan hau ezinezkoa da administrazioa gehiago inplikatzeko ez bada. Egia da oinarria sindikatuok eta administrazioak elkarlanean finkatu genuela, protokolo bat sortu zen kanpo eraso bat ematen delarik nola salatu jakin ahal izateko eta behin, salaketak eginda, diagnostikoa egiteko. Honeraino bideko lehenbiko pausoa emana dago, orain, diagnostia egin eta gero, bigarren pausoa emateko garaia irtsi da, esan nahi dut, irtenbidea bilatzeko ordua da eta horretarako **balibideak** behar dira.
3. Eta nola irtenbidea bilatu?
Irtenbidea bilatzen hasi baino lehen, gogorarazi beharra dut bi irtenbide mota daudela:
 1. **Pertsonala**, hau da, kanpo eraso bat ematen denean. Protokoloa **arina** izan behar da eta irtenbide **automatikoa** eman behar zaio pertsona horri eta ez esperatu arazoa kronifikatzen den arte. Irtenbidea ezin da izan leku aldatze lehiaketara bidaltzea edo estresa dela eta medikuak baja ematea.
 2. **Sistemakoa**, osasun prebentziotik haratago doana, non behar diren neurriak hezkuntza sistema osoari eragiten dioten. Honen ondorio zuzena segregazioa da, esate baterako oinarritzko Lanbide Heziketako ikasketetan ematen dena, non ikasle guztiak pilatzen dituzten ikastetxeak “ghetto” bihurtuz.

Hau esanda, administrazioaren aldetik inplikazio gehiago hainbat modutan adierazten ahal da:

- Prebentzioarekin behar den **konpromisoa** izanez. Horretarako administrazioa eta sindikatuok biltzen gara xede hori duen foroan, **Segurtasun eta Osasun Komitea**-n hain zuzen ere. Komite honetan parekidetasuna bilatu nahi da, hortaz sindikatuetatik eta administrazio aldetik kide kopuru antzekoa osatu beharko genuke. Sindikatuok komite honetan sinisten dugu, baina administrazioak ez duela guk bezain beste sinisten antzematen da, oso partaide gutxi azaltzen baitira.
- Lan arriskuen prebentzioko **prestakuntzari** inportantzia gehiago emanez. Aurrekontuetan gaiak merezi duen diru “partida” ematen, lan ezbeharrak gutxitu daitezkeen beharrezkoa baita. Bermatu ikastetxeetako langile orok jasotzen duela prebentziorako formakuntza duina, Hezkuntza Departamentua behartuta baitago formakuntza hori ematen.
- Lan osasuneko **prebentzio delegatuaren figura** ikastetxeetan sortuz eta pertsona hori formatuz. Figura hori zubi lana egingo zuen eta asko lagunduko zuen. Lehenbiziko filtroa izanen litzateke, lankideen arteko gertutasunagatik. Argibideak emanen dituena hurrengo urratsak gauzatu daitezkeen. Modu honetan bide kooperatiboak sustatuko lirateke irakasleen artean.